

14. MCH-TCR ELKAREKINTZA

1.

- Antigeno hau patogeno extrazelularrena izan daiteke eta besikulan degradatu ondoren sortzen den peptidoa HLA molekulari batuta aurkezten da zelularen mintzean.
- Antigeno hau antigeno propioa izan daiteke, zelulak endozitosiz barneratutakoa eta sortuko den peptidoa MHC molekulari batura aurkeztuko da zelularen mintzean.
- Antigeno hau besikula batean degradatuko da.

2.

- Antigeno aurkezle profesionala (APC).
- Langerhans zelula izan daiteke.
- Zelula honek HLA-DP, HLA-DQ eta HLA-DR molekulak ditu bere mintzean.
- Zelula honek MHC-I eta MHC-II molekulak dauzka bere mintzean.
- Zeula hau makrofagoa balitz, patogenoa fagolisosomak degradatu eta sortutako peptidoak MHC-II arekin batera aurkeztuko luke.
- Zelula hau B linfzitoa denean BCR-ak lotzen duen antigenoa barneratu, prozesatu eta peptidoa MHC-II arekin batera aurkeztuko du.
- Zelula honek peptido endogeno zein exogenoak aurkez ditzake bere mintzean.

3.

- MHC-II.
- Molekula hau alfa eta beta kate banaz osatuta dago eta APC zelulek izango dute mintzean; nahiz eta APCek bakarrik aurkeztu, zelula nukleatu guztiek dituzte molekula horiei dagozkien geneak.
- Gaixotasun zeliakoa (IV motako hipersentikortasuna) duten pazienteetan gaixotasunarekin estuki erlazionatuta dauden HLA-DQ2 edo HLA-DQ8 molekula.

4.

- Peptido hau MHC molekulari aurkezten du, eta bide zitosolikotik MHC molekulara batzen direnak baino luzeagoak dira.
- Peptido hau MHC molekulari besikula batean batu da.
- Peptido hau MHC-II molekulari batzen da; jatorria antigeno propio zein arrotza izan daiteke.

5.

- CD4.
- Molekula hau duten zelulak infektatzen ditu HIV birusak.
- Molekula hau APC zelulak mintzean duen MHC-II molekularen beta katearen zati konstantearekin batzen da.

6.

- Molekula hau alfa eta beta kate banaz osatuta dago; jatorri endosomikotik prozesatutako antigenoen peptidoak eta MHC molekula aldi berean ezagutu beharko ditu aktibazioa gerta dadin.
- Molekula hauek eta CD3 molekulak, T linfzito laguntzailearen TCRa osatzen dute.
- Molekula hau duen zelula aktibatzen bada, ekintza efektorea batez ere zelula honek ekoiztuko dituen zitokinek bideratuko dute.

7.

- T linfzito laguntzailea.
- Linfzito mota hau, B linfzitoen aktibazioan garrantzitsua da.

8.

- Antigeno hau zelula barnekoa zein patogeno intrazelularrena izan daiteke.

- Proteina hau proteasomak peptidotan bihurtuko du.
- Aurkezpenerako bide zitosolikoa jarraituko duen antigenoa.

9.

- Zelula hau edozein zelula nukleatu izan daiteke.
- Zelula honetan kaspasak aktibatuko dira, berori batuta dagoen zelula aktibatzen bada.
- Zelula honek apoptosia jasango du.
- Zelula mota hau, makrofagoen aktibaziorako garantzitsua da. ??

10.

- β 2- mikroglobulina.
- MHC-I molekularen kate hau ez da polimorfikoa.
- Irudian agertzen diren erantzun immuneko mintzeko molekuletatik, mintzean txertatuta ez dagoen bakarra da.

11.

- HLA-A, HLA-B edo HLA-C locusek kodetuko luketen polipeptidoa.
- Molekula honi bide zitosolikotik eratorritako peptidoak batzen zaizkio.
- MHC-I motako molekularen alfa katea.

12.

- Peptido hanen jatorria itu-zelularen zitoplasmako proteina da.
- Peptido hau MHC molekulari erretikulu endoplasmatikokoan batu eta Golgi aparatutik igaro ondoren heltzen da mintzera.
- Peptido hau MHC-I molekularak aurkezten du, eta bide endosomikotik MHC-II molekulari batzen direnak baino laburragoak dira.

13.

- CD8.
- Molekula hau HLA-DP, HLA-DQ edo HLA-DR molekularen α 3 domeinuarekin batzen da.
- Molekula hau MHC-I molekularen α 3 domeinuarekin batzen da.

14.

- Molekula honek eta CD3 molekularak T linfozito zitotoxikoaren TCRa osatzen dute.
- Molekula hau peptidoarekin eta HLA molekularen α 1 eta α 2 domeinuarekin batzen da.
- TCR hau duen zelula aktibatzen bada, granzina eta perforinak jariatuko ditu.

15.

- T linfozito zitotoxikoa.
- Timoan heldu den linfozito hau CD4 (-) da?
- Zelula honek ADCC eragin dezake.

